

Olerkeriari buruz zerbait

Edozein literaturatan asko idatzi izan da olerkiari buruz; orrela egin eben greziarrak, orrela erromatarrek, eta orrela munduko izkuntza guztietan jardun daben idazleak. Beti ta edonun txalotua izan da olerkia, poesia, azal ta mamin eder jantzitako bertso panpina.

Ainbat idazlek, euren urre-jarioz, gauza bitxiak esan izan dabez olerkiari buruz. Antxifia-antxifia baten, esaterako, Boccaccio'k (1313-75), onela ifioan: «Olerkia, jente ezjakifnak, gitxi-eritxi ta aintzat ez artua, berotasun gogor bat dozu, irakin aldi bat, billatze ezin-obera ta itzez naiz idatziz aurkitu dana adieraztera daroana; Jainkoarekiko irakin bero bat da, ta, nik uste dodanez, gogo edo adimen gitxiri emona. Doai bat da, ta doai arrigarria dalako, olerkariak beti izan dira gitxi ta bakanak. Irakite onen ondorenak, ba, gain-gaifneko ta gurenak dira; bultz daragio adimenari, adierazteko, gurari bizira, asmo ta ideia bakanak, ifioiz entzun-bakoak oldoztu ta gogo emotera; eta, ausnartu ondoren, egokitasun eia ordena zeatz bikalifnean jarten ditu, oreturiko mamin ori itz eta esatera joriz edertu ta alegi-egiazko miesaz apaindurik...

«Eta poesi-irakin doala artu dauan edonok, dagokion arazo txarto bete ba'dagi, ez da nire eritxiz olerkari ona, ez dau txalorik merezi. Olerki-sastada edo zirkiñak, emon jakonaren adimena sakon be sakon astintzen dauanarren, ezta erreza goragarri litzateken ezer osotzea, pentsamentu ta ideiak burutzeko tresnak, akas dun, markets eta badaezpadakoak ba'dira; grama-

tika ta erretorikaz diñot au batez be, oneik ondo jakitez...
taezkoa da-ta.»

Eritxi askoren artean, ez dago txarto au. Gauza bi daukagu
berton: goiko doaia, argia ta indarra alde batetik; eta norbera-
ren lana bestetik. Bear-bearra dozu au. Esanbide bat osotzen
ezkero, ez dogu oiñarriztat artu bear bitatik bat au, goi-argia
edo lana; lana eta goi-argia baiño. Ertilaria aske da bere lan-
etan, dala poesia, dala beste edozein arte-lan. Ajedrez jokatu
bardintzen dau Stefan Zweig'ek olerkariaren askatasuna. Oler-
gaiñeko berrogetasei toki izkuntzaren berrogetamar edo in-
rogei milla itz bezela dira, zein sorgin-orraziaren koloreak izan.
Eta ajedrezean bat bera be birritan egin barik ainbat eta au-
bat joko egin daikezan legez, era bardiñean poesi-lanean be.

Artista guztiak —emen poetak— ezin geinkez eroan bide
batetik zear. Au emendik joango da, ta bestea bestetik. Ariketa
onako baldintzetan lan egingo, eta onek alakoetan, baiño be-
telakoetan. Bakotxak dau bere era bakarra, lana sortu ta osot-
tzeko; ber-berea dau era ori, eta berak bakarrik jarraitu bear
dautso orri. Ez gaitez an ibilli, ba, Lizardi, Lauaxeta naiz Oribe
baten antz-antzera idatzi naita. Bakotxak dau bere idazkera
bere ederkera, bere bide berezia; ni noan neuretik eta zu zara
zeuretik, eta zuk zeuri dagokizun lana burutuko duzu, eta nik
neuri dagokidana.

Eta zelan jokatuko lana egikeran? Edo arte-lan bat aurrera
eroan nai dozunean? Goi-argiari itxaron eta ak berotu ta zirkulu
dagiskunean, bakarrik idatzi, ala eroapen aundiaz argi orretik
bultz eragitean naiz unez une lanari loturik jardun? Onera eredu
bi: Wagner'ek goi-argitua zanean bakarrik idazten eban mu-
sikea, illabete luzeak ezer egin barik egonik; Bach'ek, ostera,
egunero egunero idatzen eban zerbait; ari bat-batean datorrik
indarra, goi-arnasa, eta oni iturri bateri lez darío arte-lanaren
gozotasuna. Baiña, biak ditugu artista aundi.

Zeintzuk ete dira lan obeak, bat-batean osotuak ala geldin
egiñak eta egoari aundiz utsak arteztu ta leunduak? Batzuk
leenago eta orain be bai, Paul Valéry'k diñoskunez, euren lanak
orraztu ta orraztu urteak emon oi dabez, gerorako lan bete
ta oso-oso burutu nairik. Berak ez eban eder jokabide orri
baiña gero orretan ari izan zan. Au diño: «Luzaro bizi izan

neure poemekin. Ia amar urtetan luzaroko ariketa izan da
erretzat egintza bat baiño geiago ariketa bat, emote bat baiño
geiago iker-lana, neure eta neuk egindako buru-aztertze bat
geiago bai, erriarentzat egiña baiño».

Gauza bat erakutsi eutsozan Valéry'ri jokabide onek, baiña
bera ez eban inorentzat gura; ez naz inori inori kontsejuak emo-
tuko eta beste aldetik ez dot uste au ona danik ariñeketan bizi
diran gazteentzat batez be, naste aundikoa ta gero illunekoa.
«Illun-aldi ikaragarrian aurkitzen gara...» (*Le Cimetière marin*,
sarreran).

Beraz, txukun idatzi bai, baiña ez zaitez geiegi nekatu bat-
bateko lanak orraztuten.

Igotz